

Ebazpena: R025/2023

Espedientea: 6/2016

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, zeinaren helburua baita ez-egoiliarren errentaren gaineko zergak eragindako atxikipenak, JMA jaunak lortutako lan-etekinei dagozkienak, ordainarazteko eskumena zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 6/2016 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

- 1.-** JMA jauna pertsona fisiko bat da; zerga-egoitza Hendaian (Frantzia) zuen, eta Donostiako Espetxean lan egiten zuen Estatuko funtzionario gisa.
- 2.-** 2013ko maiatzaren 15ean, 2014ko maiatzaren 7an eta 2015eko maiatzaren 4an, GFari eskatu zion 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan, hurrenez hurren, Europar Batasunean bizi direnentzako hautazko araubidea aplikatzeko, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga arautzen duen araudian aurreikusia.

3.- 2015eko abuztuaren 27an, GFAk ZAEARI eskatu zion Estatuko Administrazioak atxikitako eta ZAEAn sartutako zenbatekoak transferitzeko, JMA jaunari ordaindutako lan-etekinengatik. Zenbateko horiek 8.361,42 €, 8.968,01 € eta 9.059,60 € dira, urte horiei dagokienez.

4.- 2015eko azaroaren 12an, ZAEAK ezetsi egin zuen eskatutako zenbatekoak transferitzeko eskaera, eta, beraz, GFAk inhibitzeko eskatu zion ZAEARI 2021eko abenduaren 21ean. Errekerimendu horri zuzenketa bat egin zitzaion, JMA jaunaren IFZren harira, 2016ko urtarrilaren 11n egindako jakinarazpenaren bidez.

5.- 2016ko urtarrilaren 20an, ZAEAK inhibizio-errekerimenduari uko egin ziola jakinarazi zion GFARI.

6.- 2016ko otsailaren 12an, GFAk gatazka planteatu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

7.- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAK alegazioak egiteko eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. Azkenik, ZAEAK amore eman du eta ados dago JMA jaunak Gipuzkoan lortutako lan-etekinei dagozkien ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenak ordainarazteko eskumena GFAREN izatearekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena du Ekonomia Itunaren 66.Bat artikulua araberan. Horri jarraiki, honako hauek dira haren funtzioak:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai itundutako zergen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zerga edota balio erantsiaren gaineko zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banakako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Europar Batasunean bizi direnentzako aukerako araubidea

Bi administrazioen artean sortu den desadostasuna ez da izan Estatuko funtzionario bati ordaindutako errentak ordainarazteko eskumena duen Administrazioa zehazteari buruzkoa —gai hori behar bezala mugatu zen Arbitraje Batzorde honek emandako 15/2015, 19/2015 eta 20/2015 ebazpenetan, 5/2013, 3/2013 eta 4/2013 gatazkei dagokienez, hurrenez hurren—, baizik eta aurretiazko gai bati buruzkoa; hau da, Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak aplikatzea ahalbidetzen duten kasuak betetzen direla egiaztatzea: JMA jauna Frantzian bizi zen, hark jasotako errentak Gipuzkoan lortu ziren eta JMA jaunak Ekonomia Itunaren 21. artikuluan aurreikusitako aukera baliatu zuen; GFAk hori guztia behar bezala egiaztatu zuen.

2.- Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAREN amore emateak, JMA jaunak Gipuzkoan lortutako lan-etekinei dagozkien ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenak ordainarazteko eskumena onartuta, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea, ZAEAREN amore emateak prozeduraren xedea gerora desagertzea ekarri duelako, eta onartzea GFAREN eskumena duela JMA jaunak lortutako lan-etekinei dagozkien ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenak ordainarazteko.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta JMA jaunari.